| Markel Olano Arrese Jn.<br>Denis Itxaso González Jn.<br>Elena Lete Garcia And.<br>Beatriz Rodrigo Moya And. (bideokonferentzia bidez), Tomás Fernández García jaunaren ordez<br>Carlos Ruiz González Jn.<br>Juan José Álvarez Rubio Jn.<br>Iñaki Esparza Leibar Jn.<br>Maite Barruetabeña Zenekorta And. | **BERGARAKO UNED FUNDAZIOAREN PATRONATUAK 2017KO MARTXOAREN 16an GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN JAUREGIAN EGINDAKO BILERAREN AKTA.** |
| --- | --- |

2017ko martxoaren 16an, arratsaldeko 17:00etan, zerrendatu diren Patronatuko kideak elkartu dira, eta hau izan da **GAI ZERRENDA**:

1. 2016ko abenduaren 22ko bilerako akta irakurri, eta, hala badagokio, onartzea.

2. Patronatuko Idazkari berria izendatu eta onartzea.

3. Onartzea, hala badagokio, fundazioaren 2016. ekitaldiko aurrekontuaren itxiera edo deskargua.

4. Onartzea, hala badagokio, fundazioaren 2016. ekitaldiko aurrekontuaren kontuen ikuskaritza.

5. UNED-Bergarako zentroaren egoitzan egin beharreko lanen lizitazio-prozesuari buruzko informazioa.

6. Fundazioaren estatutuen aldaketa Eusko Jaurlaritza Patronatuan sartzea burutzeko.

7. Tutoreen aldi baterako bajei eta irakasle-tutoreen estatutuari lotutako araubide juridikoari buruzko egoera juridikoa.

8. Eskariak eta galderak.

----------

**1.) Aurreko akta.**

Patronatuaren 2016ko abenduaren 22ko bileraren akta onartu da.

San Martin Agirre Pl. 4
20570 Bergara

Tel: 943 769 033
Fax: 943 762 721

www.uned.es/ca-bergara

**2.) Patronatuko idazkari berria izendatu eta onartzea.**

Patronatuko idazkari izan den Luis Elicegui Mendizabal jaunak erretiroa hartu duenez, lehendakariak Maite Barruetabeña Zenekorta andrea proposatu du idazkari kargu horretarako, Gipuzkoako Foru Aldundiko Araubide Juridikoko eta Funtzio Publikoko zuzendari dena.

Bertaratutakoek aho batez onartu dute proposamena.

Fundazioaren patronatuak Luis Elicegui Mendizabalek aurreko urteetan egindako lana eskertu du, eta eskainitako dedikazioa aitortu dio.

Une horretan, bertan zegoen Maite Barruetabeña Zenekorta andreak kargua onartu du.

**3.) Onartzea, hala badagokio, fundazioaren 2016. ekitaldiko aurrekontuaren itxiera edo deskargua.**

UNED-Bergara Fundazioaren aurrekontu ekitaldiaren deskargua aurkeztu da, onar dadin, eta Alvarez jaunak azalpenak eman ditu diru sarreren eta gastuen garapenari buruz.

Hori dela-eta Patronatuaren Batzordeak erabaki du onartzea UNED-Bergara Fundazioaren 2016ko aurrekontuaren likidazioa, akta honen **1. eranskin** gisa doana eta honela laburtzen dena:

Diru Sarrerak eta Ekarpenak, guztira..... 1.223.243,02 €
Gastuak eta hornidurak, guztira...........1.225.098,23 €

Guztira............................... 1.855,21 €

Aurrekontu Arrunteko ekitaldiaren emaitza: -1.855,21 €

**4.) Onartzea, hala badagokio, fundazioaren 2016. ekitaldiko aurrekontuaren kontuen ikuskaritza.**

Kontabilitatearen auditoretzaz gain, kudeaketarena ere egin dugu, lehenengoz. Emaitzak jasotzen dituzten txostenak ahalik eta lasterren bidaliko dizkiegu patronatuko kideei.

**5.) UNED-Bergarako zentroaren egoitzan egin beharreko lanen lizitazio-prozesuari buruzko informazioa.**

UNED-BERGARA FUNDAZIOAREN patronatuaren 2016ko abenduaren 22ko Erabaki bidez onartu zen BERGARAKO ERREGE MINTEGIAN UNED ZENTROAK DUEN EGOITZAREN BIRGAITZE INTEGRALEKO OBRAK EGITEKO PROIEKTUA,

lizitazio aurrekontua izanik MILIOI BAT BOSTEHUN ETA HIRUROGEITA HAMALAU MILA ZAZPIEHUN ETA BERROGEITA HEMERETZI EURO ETA HEMEZORTZI ZENTIMO (1.574.759,18 €) gehi HIRUREHUN ETA HOGEITA HAMAR MILA SEIEHUN ETA LAUROGEITA HEMERETZI EURO ETA BERROGEITA HIRU ZENTIMO (330.699,43 €), BEZ kontzeptuan, eta HOGEI (20) hilabeteko epean egiteko.

Era berean, onartu ziren aipatutako proiektuaren obrak egiteko kontratazio espedientea eta baldintza administratiboen agiriarena, eta xedatu zen kontratua esleitzeko prozedura irekiari hasiera ematea.

Horri buruzko iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren, eta aurreikusitako epea amaitu delarik, enpresa hauek aurkeztu dute obra hori egiteko beren eskaintza: IZA OBRAS Y PROMOCIONES, LURGOIEN EMPRESA CONSTRUCTORA, TEUSA, ALTUNA Y URÍA + MOYUA, BAUEN, GOITU + AIZKORPE eta AMENABAR.

| LIZITATZAILEA | ESKAINTZA EKONOMIKOA | BEZa (% 21) | GAUZATZEKO EPEA |
|---|---|---|---|
| IZA OBRAS Y PROMOCIONES SA | 1.417.283,00 | 297.629,43 | 16 HILABETE |
| LURGOIEN EMPRESA CONSTRUCTORA SAU | 1.543.070,18 | 324.044,74 | 16 HILABETE |
| TEUSA TECNICAS DE RESTAURACION SA | 1.403.408,29 | 294.715,74 | 17 HILABETE |
| ALTUNA Y URÍA SA + CONSTRUCCIONES MOYUA SL | 1.336.999,17 | 280.769,82 | 16 HILABETE |
| BAUEN EMPRESA CONSTRUCTORA SAU | 1.491.139,47 | 313.139,29 | 16 HILABETE |
| GOITU ERAIKUNTZAK SL + AIZKORPE ELEKTRIKARIAK KOOP. | 1.382.346,02 | 290.292,66 | 12 HILABETE |
| CONSTRUCCIONES AMENABAR SA | 1.377.914,28 | 289.362,00 | 17 HILABETE |

Enpresa guztiak onartuak izan dira eta eskaintzak balioetsi dira, elkarren segidako faseetan; horren ondoren, proiektua idatzi zuten arkitektoek eta zuzendaritza fakultatiboak proposatu dute kontratua esleitzea GOITU ERAIKUNTZAK SL eta AIZKORPE ELEKTRIKARIAK KOOP. enpresek eratutako enpresen aldi baterako batasunari, 1.382.346,02 euroko zenbatekoz (gehi % 21eko BEZari dagozkion 290.292,66 euro), hori baita eskaintza onuragarriena.

Ondorioz, ERABAKI hau hartu da aho batez:

**Lehenengo.-** Eskatzea GOITU ERAIKUNTZAK SL eta AIZKORPE ELEKTRIKARIAK KOOP. enpresei hamar egun baliodunko epean aurkez dezaten Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategineko 151.2 artikuluan aurreikusitako dokumentazioa.

**Bigarren.-** Obraren zuzendaritza osatuko dute Aitor Zubia Azkue eta Xabier Zabala Urriategi arkitektoek eta Jesús Laskurain Pérez arkitekto teknikoak.

**Hirugarren.-** Ahalmena ematea UNED-Bergarako zuzendari den Iñaki Esparza Leibar jaunari kontratua esleitzeko, formalizatzeko eta, oro har, hura egoki gauzatzeko

behar diren egintza eta erabakiak har ditzan, enpresak eskatutako dokumentazioa aurkeztu ondoren.

**6.) Fundazioaren estatutuen aldaketa Eusko Jaurlaritza Patronatuan sartzea burutzeko.**

Estatutuen aldaketa aztertu dute bertaratutakoek, eta erabaki dute ezen Kutxak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Bergarako Udalak erabaki behar dituztela hemen aipatutako Fundazioaren Estatutuen aldaketa horiek.

**7.) Tutoreen aldi baterako bajei eta irakasle-tutoreen estatutuari lotutako araubide juridikoari buruzko egoera juridikoa.**

Kudeaketaren auditoretzak agerian utzi du aztertu egin behar dela irakasle tutoreen baja egoeren araubide juridikoaren gaia.

Ondorioz, erabaki da luzatzea egon daitezkeen eskaerak, Patronatuak horri buruzko erabakiren bat hartu arte.

**8º) Eskariak eta galderak**

Apirilean erretiroa hartuko du Pilar Cortazar Idazkaritzako buruak. UNED-Bergarako Patronatuaren Batzordeak urte hauetan egindako lana aitortu nahi dio. Era berean, adierazi da lanpostu hori ez dela beteko, eta etorkizunean irizpide hori jarraituko dela erretiroei dagokienean, langile gastuak murrizteko asmoz. Kutxako ordezkariak eskatu du gai horri buruz jarraitu nahi den estrategiaren berri emateko, alderdi horrek aurrekontuan duen eragina dela-eta.

**Beste gairik ezean, lehendakari jaunak bilera amaitutzat eman du 18:30ean, eta nik idazkari bezala ziurtatzen dut.**

UNED BERGARA

D. Markel Olano Arrese,
D. Denis Itxaso González
Dña. Elena Lete Garcia
Dña. Beatriz Rodrigo Moya (por videoconferencia) en representación de D. Tomás Fernández García
D. Carlos Ruiz González
D. Juan José Álvarez Rubio
D. Iñaki Esparza Leibar
Dña. Maite Barruetabeña Zenekorta

**ACTA DE LA REUNIÓN DEL PATRONATO DE LA FUNDACIÓN UNED BERGARA, CELEBRADA EL DIA 16 DE MARZO DE 2017, EN EL PALACIO DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA.**

Siendo las 17:00 horas del día 16 de marzo de 2017, se reunieron los miembros del Patronato, detallados al margen, con el siguiente **ORDEN DEL DIA:**

1. Lectura y aprobación, si procede, del acta de la reunión del día 22 de diciembre de 2016.

2. Nombramiento y aceptación de la nueva Secretaria del Patronato.

3. Aprobación, si procede, del descargo o cierre del ejercicio presupuestario 2016 de la Fundación.

4. Aprobación, si procede, de la auditoría de las cuentas del ejercicio presupuestario 2016 de la Fundación.

5. Información sobre el proceso de licitación de las obras en la sede del centro UNED Bergara.

6. Modificación de Estatutos de la Fundación para poder materializar la incorporación del Gobierno Vasco como miembro del Patronato.

7. Situación jurídica vinculada al régimen jurídico asociado a las bajas temporales de tutores y al estatuto de profesor tutor.

8. Ruegos y preguntas.

----------

San Martin Agirre Pl. 4
20570 Bergara

Tel: 943 769 033
Fax: 943 762 721

www.uned.es/ca-bergara

**1º) Acta anterior.**

Se aprueba el Acta de la reunión del Patronato de 22 de diciembre de 2016.

**2º) Nombramiento y aceptación de la nueva Secretaria del Patronato.**

Ante la jubilación del anterior Secretario del Patronato, D. Luis Elicegui Mendizabal, el Presidente propone a la Junta el nombramiento de nueva Secretaria del Patronato en la persona de Dña. Maite Barruetabeña Zenekorta, directora de Régimen Jurídico y Función Pública de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

La propuesta es aprobada por unanimidad de los asistentes.

El patronato de la Fundación agradece la labor realizada por Luis Elicegui Mendizabal durante estos años, reconociendo su gran dedicación.

En el mismo acto, estando presente Dña. Maite Barruetabeña Zenekorta, acepta el cargo para el que ha sido designada.

**3º) Aprobación, si procede, del descargo o cierre del ejercicio presupuestario 2016 de la Fundación.**

Se presenta para su aprobación el descargo del ejercicio presupuestario de la Fundación UNED-Bergara y el Sr. Álvarez explica la evolución de los ingresos y gastos en el ejercicio.

Por todo ello, la Junta del Patronato acuerda aprobar la liquidación del Presupuesto del año 2016 de la Fundación UNED-Bergara, que se acompaña al Acta como **Anexo nº 1** y que ofrece el siguiente resumen:

Total Ingresos y Aportaciones...........1.223.243,02 €
Total Gastos y Provisiones...............1.225.098,23 €

Total............................ -1.855,21 €

Resultado Ejercicio Presupuestario Ordinario: -1.855,21 €

**4º) Aprobación, si procede, de la auditoría de las cuentas del ejercicio presupuestario 2016 de la Fundación.**

Por primera vez se ha hecho además de la auditora estrictamente contable, también una auditoría de gestión. Los informes con los resultados se remitirán a la mayor brevedad posible a los miembros del patronato.

**5º) Información sobre el proceso de licitación de las obras en la sede del centro UNED Bergara.**

Por acuerdo del Patronato de la FUNDACIÓN UNED BERGARA adoptado en sesión celebrada el 22 de diciembre de 2016 se aprobó el PROYECTO DE EJECUCIÓN DE LAS OBRAS DE REHABILITACION INTEGRAL DE LA SEDE DEL CENTRO UNED EN EL REAL SEMINARIO DE BERGARA, con un presupuesto de licitación de UN MILLON QUINIENTOS SETENTA Y CUATRO MIL SETECIENTOS CINCUENTA Y NUEVE EUROS CON DIECIOCHO CÉNTIMOS (1.574.759,18 €) más TRESCIENTOS TREINTA MIL SEISCIENTOS NOVENTA Y NUEVE EUROS CON CUARENTA Y TRES CÉNTIMOS (330.699,43 €) en concepto de IVA y un plazo máximo de ejecución de veinte meses.

Asimismo se aprobó el expediente de contratación de ejecución de las obras del citado Proyecto, el correspondiente pliego de cláusulas particulares y se dispuso la apertura del procedimiento abierto para la adjudicación del contrato.

Publicado el correspondiente anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y concluido el plazo previsto, han presentado oferta en plazo para realizar el objeto del contrato las siguientes empresas: IZA OBRAS Y PROMOCIONES, LURGOIEN EMPRESA CONSTRUCTORA, TEUSA, ALTUNA Y URÍA+ MOYUA, BAUEN, GOITU +AIZKORPE y AMENABAR.

| LICITADOR | OFERTA ECONÓMICA | IVA correspondiente 21 % | PLAZO DE EJECUCIÓN |
|---|---|---|---|
| IZA OBRAS Y PROMOCIONES S.A. | 1.417.283,00 | 297.629,43 | 16 MESES |
| LURGOIEN EMPRESA CONSTRUCTORA S.A.U. | 1.543.070,18 | 324.044,74 | 16 MESES |
| TEUSA TECNICAS DE RESTAURACION S.A | 1.403.408,29 | 294.715,74 | 17 MESES |
| ALTUNA Y URÍA S.A. + CONSTRUCCIONES MOYUA S.L. | 1.336.999,17 | 280.769,82 | 16 MESES |
| BAUEN EMPRESA CONSTRUCTORA S.A.U. | 1.491.139,47 | 313.139,29 | 16 MESES |
| GOITU ERAIKUNTZAK S.L. +AIZKORPE ELEKTRIKARIAK KOOP. ELK. | 1.382.346,02 | 290.292,66 | 12 MESES |
| CONSTRUCCIONES AMENABAR S.A. | 1.377.914,28 | 289.362,00 | 17 MESES |

Habiendo sido admitidas todas las empresas licitadoras y evaluadas las proposiciones en fases sucesivas, por parte de los arquitectos redactores del Proyecto y de la Dirección Facultativa se ha propuesto la adjudicación del contrato a la UTE formada por las empresas GOITU ERAIKUNTZAK S.L. y AIZKORPE ELEKTRIKARIAK KOOP. ELK por un importe de 1.382.346,02 euros más 290.292,66 euros en concepto de IVA (21%), al tratarse de la oferta más ventajosa.

En consecuencia se adopta por unanimidad el siguiente ACUERDO:

**Primero.-** Requerir a las empresas GOITU ERAIKUNTZAK S.L. y AIZKORPE ELEKTRIKARIAK KOOP. ELK, para que dentro del plazo de diez días hábiles presente la documentación prevista en el artículo 151.2 del texto refundido de la Ley de Contratos del Sector Público.

San Martin Agirre Pl. 4
20570 Bergara

Tel: 943 769 033
Fax: 943 762 721

www.uned.es/ca-bergara

**Segundo.-** El equipo de dirección de la obra estará integrado por los arquitectos D. Aitor Zubia Azkue y D. Xabier Zabala Urriategi y por el arquitecto técnico D. Jesús Laskurain Pérez.

**Tercero.-** Facultar al Director de la UNED-Bergara, D. Iñaki Esparza Leibar, para que, una vez que la empresa haya presentado la documentación justificativa requerida proceda a la adjudicación del contrato, a su formalización y en general para adoptar cuantos actos y decisiones sean necesarios para su correcta ejecución.

**6º) Modificación de Estatutos de la Fundación para poder materializar la incorporación del Gobierno Vasco como miembro del Patronato.**

Se debate entre los asistentes la propuesta de modificación de Estatutos, y se acuerda que Kutxa, la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Ayuntamiento de Bergara aprobarán en sus respectivas entidades o instituciones las tratadas modificaciones de los Estatutos de la Fundación.

**7º) Situación jurídica vinculada al régimen jurídico asociado a las bajas temporales de tutores y al estatuto de profesor tutor.**

La auditoría de gestión realizada ha evidenciado la necesidad de analizar la situación vinculada al régimen jurídico de las bajas del profesorado tutor.

Se acuerda en consecuencia la moratoria en la tramitación de las peticiones que puedan realizarse, hasta que se adopte una decisión por parte del Patronato.

**8º) Ruegos y preguntas**

En abril se jubila la jefa de secretaría Pilar Cortazar. La Junta del Patronato de UNED-Bergara quiere reconocer la labor realizada durante estos años. Asimismo, se informa que este puesto no será cubierto, siendo esta la política que se asumirá en futuro en relación a las jubilaciones con intención de que se reduzca el gasto de personal. Se solicita por parte del representante de Kutxa la entrega de la estrategia que quiere seguirse en este aspecto por su impacto en el presupuesto.

**Y no habiendo más asuntos que tratar el Sr. Presidente levanta la sesión, siendo las 18 horas y 30 minutos, lo que yo, Secretaria, certifico.**